

GIPUZKOA 2003 PLANA



Gipuzkoako Foru Aldundiak *Gipuzkoa 2003 Plan ohiz kanpokoan* bildutako 50 proiektu baino gehiago bultzatzen ditu, garapena sustatzeko, bitzta kalitatea hobetzeko, aurrerapenaren bidean aurrera egiteko eta etorkizunak ekarriko dizkigun erronkei aurre egiteko helburuarekin. Txosten honetan, ezohiko proiektu horietatik amaitu ditugunak emango ditugu ezagutzera. Oraindik burutu ez den Plan hau zein egoeratan dagoen azaldu nahi dugu, izenak berak dioen bezala (Gipuzkoa 2003 Plana), oraindik ere jarduera batzuk 2003an garatuko baitira. Gipuzkoako Foru Aldundiak 500 milioi euro (83.000 milioi pezeta) inbertitu ditu, ezohiko izaeraz, azken hiru urteetan ondoko 3 funtsezko alorretan aurrera egiteko: Gizartearen kohesioa eta elkartasuna, Modernizazioa eta Kultura eta Ingurumena. Esfortzu horrek guztiak bere fruituak eman ditu baina, lortu dugunagatik pozik egon arren, oraindik ere egiteko asko dagoela onartu behar dugu. Atzo proiektuak besterik ez zirenak errealitate bilakatzen hasi dira. Zuri esker Gipuzkoa era positiboan dago.

GIZARTEAREN KOHESIOA ETA ELKARTASUNA

Ezohiko jarduerak burutu dira Pasaialdea biziberritzeko eta, baita ere, baztertutako kolektiboen arreta hobetzeko. Bidezko gizarte bat, guztioi aukera berdinak eskaintzen dizkiguna, gizarte hobea delako.

Jarduketak Pasaialdean

Gipuzkoa 2003 Planarekin Pasaialdeak norabide berri bat hartu du. Hiria biziberritzeko jarduerak garatu dira Pasaian: Donibanekeo Santiago Plaza, San Pedroko hirigunea, Antxoko azoka, Trintxerpeko auzo garaietarako igogailuak eta abar. Horretaz gain, Gomistegiko errotondari esker, Trintxerpe, San Pedro eta Herrerarako sarrera hobetuko da eta bertako trafikoa antolatuko da.

Halaber, eremu horrek espazio publiko berriak izan ditzan lanak egin dira, horretarako jadanik Molinao alorraren hiru heren desjabetu direlarik. Bertan zeuden jarduera industrialak beste leku batean kokatu ondoren, pabilioi zaharrak eraisteko lanak hasiak daude.

Pasaialdeak, poligono berriak kokatu ahal izateko, lur industrialak izan dezan lan egiten ari da Aldundia: Txirrita Maleo, Masti-Loidi, Lanbarren, Lintzirin, Egiburu eta Gaintxurizketa.

Era berean, berehala ekingo zaio Nabalaldea poligonoaren eraikuntzari. Bertara ontziolen alorreko enpresa lagungarriak bilduko dira. Flota eta arrain-saltokiak berritzea ere sustatzen ari da Aldundia.

Jarduera horiei guztiei esker 700 lanpostu berri baino gehiago sortu dira.

Hori da Udalekin, Eusko Jauriaritzarekin, Gobernu Zentra- larekin, Portuko Agintaritz eta abarrekin lankidetzan Foru Aldundiak hartu duen bidea. Pasaialdea Gipuzkoako abe- rastasun eta ongizaterako gune garrantzitsuenetako bat izaten jarraitzea nahi dugulako 22,5 milioi euro (3.750 milioi pezeta) hitzartu ditu Aldundiak Pasaialdea bizibe- rritzeko.

Gizarteratze plana

Gipuzkoa 2003 Planaren helburua da gehien behar dutenei laguntzea. Gizarte justu eta solidarioago bat lortzea, inor baztertu gabe.

Behar handienak dituztenak atenditu nahi ditugu, bitzta kalitate duin bat izango dutela bermatuz. *Gipuzkoa 2003 Planeko Gizarteratze Planak* 58 lanpostu sortzea ahalbidetu du, gizarte izaerako arazoak dituzten pertsonak lan mun- duan sar daitezen bultzatzeko.

Aldakonean kolektibo baztertuentzako arreta eta birgaitze zentro bat sortu da eta eskualdeko zentroetan 92 leku sortu dira adimen gaixotasuna duten pertsonak gizartera- tzeko.

Gizarteratze programei laguntzen jarraitzen du Aldundiak plan honen bitartez, elkarte eta kolektibo desberdinekin hitzarmenak sinatuz. Era berean, baztertutako pertsonen- tzako eta HIESa duten gaixoentzako arreta zerbitzuak antolatzea eta hornitzea bultzatzen ari da Aldundia.

Larrialdiko egoitzetan eta gizarteratze eta laneratze programetan inbertitu den zenbatekoa bikoiztu egin da.

Gipuzkoako Foru Aldundiko *Gizarteratze Planak* baliabide eskasak dituzten 4.000 pertsona atenditzen ditu.

Gerontologia plana

Adineko pertsonak gogoan, hiru urtetan zehar 4.582 adineko pertsonen arreta ahalbidetu duen *Gerontologia Plana* garatu dugu.

Hona hemen kopuru batzuk:

- _ Ekimen pribatuarekin lankidetzan 1.171 leku gehiago sortu dira egoitzetan.
- _ 1.400 adineko telealarma aparatuak dituzte.
- _ Eguneko Zentroetan, 2000. urtetik hona, 426 leku berri sortu dira.

_ Etxeko Laguntza jasotzen duten beste 692 pertsona daude.

_ 785 familiak *Sendian programa* eta *Atsedernaldi programak* erabili dituzte.

Ezinduei laguntzeko plana

Beste erakunde eta elkarteekin lankidetzan, minusbaliatu fisiko eta psikikoen gizarteratzea sustatu du Aldundiak eta, orain arte, beste 405 pertsona atenditu ditugu.

Ezintasun psikikoa edo garun paralisia duten pertsonentzako egoitzetan 40 leku berri sortu dira. Horretaz gain, Eguneko Zentroetan adimen urritasuna, garuneko gaixotasuna edo traumatismo kraneoentzefalikoa duten helduentzako 245 leku prestatu dira.

Ezintasun psikikoa duten pertsonentzako 84 leku berri sortu dira zentro okupazionaletan. Ezinduentzako laguntza teknikoak gehitu dira eta 13 pertsonak parte hartzen duten *Bakarrik Programa* sustatu dugu.

Hori guztia beste erakundeekin lankidetzarekin, eta horri esker lortu da, hain zuzen ere.

Babesik Gabeko Haur eta Gazteak Zaintzeko Plan Orokorra

Aldundiak behar guztiak atenditu nahi dituzenez, ezohiko izaera dutenak ere bai, adaptazio arazo larriak dituzten gazteentzako epe luzerako 2 egoitza ireki ditu eta beste 2 (Usurbilen eta Irunen) irekitzeko beharrezkoak diren obrak egiten ari da.

Familia harrera bultzatzeko laguntza ekonomikoak ere handitu dira eta 21 familiak parte hartu duten programa sustatu dugu.

MODERNIZAZIOA

Gizarte moderno bat aurrera doan gizarte bat da. Horregatik bide berriak irekitzen ari da Aldundia, gure azpiegiturak hobetuz, ikerketan inbertituz eta gipuzkoar guztiak teknologia berrietara iristea erraztuz. Orain arte hauek dira ezohiko jarduketaren horien emaitzak:

Errepideak

Gipuzkoa 2003 Planaren bitartez Gipuzkoaren kokaleku estrategikoari dagokion bezalako bide sarea lortu nahi du Aldundiak. Horri dagokionez, Eibar-Gasteiz A1 autobidea azpimarratu behar da, behin amaituta, Donostiatik Gasteizerako bidea hogeitun minututan murriztuko baitu. Autobidearen lehenengo zatiko 7 kilometroak, Eibar eta Bergara Iparraldearen artekoak, 2003ko udaberrirako amaituta egongo dira. Beste bi zatiak 2004 amaierarako bukatuko dira.

Astigarragako eta Bergarako hego-ekialdeko saihesbideak amaitu dira. Orain Pasaia saihesbideko lanak hasi dira; egunero Pasaia zeharkatzen duten 50.000 ibilgailuen erdia behintzat saihesbideak hartzea espero da, Donostia eta Irun bitarteko ibilbidea, muturreko trafikoa dagoenean, 15 minututan murriztuz.

Errotaburuko errotondari esker Tolosako etorbideetik Donostiarako sarrera arindu eta Amara-Ibaeta bidea errazago erabiltzea bultzatuko da. Aurki, gainera, besteak beste Sasiola eta Mutriku arteko errepedearen, Deskargako tunelaren eta Martutene-Hernani zatiaren proiektuak gauzatzen hastea aurreikusten da.

Horiek dira, beraz, gure eskualdeetako sarrerak hobetzen saiatzen den *Gipuzkoa 2003 ezohiko Planaren* proiektuetako batzuk.

Lur industrialia

Gipuzkoa 2003 Planak industria eta enpresa berrien garapena bultzatzen du. Horretarako, beste erakundeekin elkarlanean, lur industrialia sustatzen ari da Aldundia.

Hernaniko Orbegozo poligono industrialia abian da jadanik. Eta 20 enpresak hitzartu dute Lanbarrengo Parke Logistikoan kokatzea.

Gauza bera gertatzea espero da, baita ere Apatxa-errekako eta Sansinenea-errekako poligono industrialekin. Horietan jadanik egin dira hiritartze lanak.

Antzeko jarduerak garatuko dira Azkoitian, Gaintzurizketan, Urnietan eta Usurbilen.

Informazioaren eta jakintzaren gizartea

Ikerkuntza, berrikuntza eta teknologia berriak dira gure etorkizunaren giltzak. Horregatik, *Gipuzkoa 2003 Planeko* baliabideen zati handi bat Informazioaren Gizartea gurean garatzera eta sustatzea bideratu du Foru Aldundiak.

Alde horretatik, informazioaren gizartean murgiltzen gaituen *Gipuzkoa 2005 Plana* azpimarratu behar da (63 milioi eurokin, 10.480 milioi pezetarekin hornitua).

47 jarduketa diseinatu dira, Informazioaren eta Jakintzaren Gizarteari dagokionez, Gipuzkoa Europako lurralde aurreratu bilakatzeko.

Jarduketa horiek guztiek ondorengo 6 xedeak dituzte:

- _ Telekomunikazio-zerbitzurik aurreratuenetarako abiadura handiko atzipena.
- _ Biztanleentzako trebakuntza arlo digitalean.
- _ Enpresen konexioa eta merkataritza elektronikoa.
- _ Zerbitzu publikoak sarean.
- _ Pertsona guztiak bere baitan hartzen dituen gizartea.
- _ Arlo digitaleko kalitateko trebakuntza-eduki propioak.

Etokizuneko hazia, gure inbertsiorik onena, gaur egun gure gazteriari eskaini diezaiokegun hezkuntzan dago.

Unibertsitatea izango da gizartearen eragilea. Unibertsitatea nahiz I+G ikerketa ildo berriak sustatzeko, *Gipuzkoa 2003 Planaren* bidez, ia 23 milioi euro hitzartu ditugu (2.390 milioi pezeta).

Zenbateko osoaren zati handi bat unibertsitate proiektuak eta garrantzi handiko ikerketa proiektuak bultzatzera zuzendua dago.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jauriaritzak eta EHUK sinatutako erakunde arteko protokoloaren arabera, unibertsitate titulazio berriak sortu dira Ibaetako Campusean: Arkitektura Teknikoa eta Herri Lanetako Ingeniaritza. Campus horretan, halaber, I+G+B gunea eraikitzen hasi da laster batean eta, epe luzeagoan, Dokumentazio Zentro Aurreratua eraikitzea aurreikusten da.

Debagoienean kalitatezko gunen zientifiko eta teknologikoa sustraitzeko Mondragon Unibertsitatearen GARAIA proiektua eta Plan Estrategikoa ere aurrera eramaten laguntzen ari da Aldundia.

Gure laguntza izan dute baita ere Donostiako Teknologia Elkartegian eraikin berri bat sortzeko lanek. Eraikin horretan egoitza emango zaie Nafarroako Unibertsitatearen bi proiektu hauei: telekomunikazioetako ingeniaritza titulazio berriaren bigarren zikloari eta Komunikazioen Teknologia alorrari.

KULTURA ETA INGURUMENA

Gipuzkoa 2003 Planak arreta bereziak eskaintzen dio Kulturari eta Ingurumenari, gizarte garapenaren zati garrantzitsua direlakoan. Alor hauetako jarduketa nagusiak, ezohiko izaeraz garatuak, hauek dira:

Jarduketak Kulturari

Foru Aldundiak, 6 milioi euroko ekarpenarekin (mila milioi pezeta) Donostiako Tabacalera enpresaren eraikin zaharrean egoitza izango duen Kultura Garaikideko Zentro berria kudeatuko duen sozietatean parte hartzen du.

Horretaz gain, Art-Media pabiloi berriarekin, Arteleku arte garaikidearen zentroa erreferentziatzeko arte eta sormen gunen gisa finkatu nahi da.

Santa Teresako komentua berregokitzen ari da Aldundia Donostian, eta aldi berean, Getariako Balentziaga Museoaren proiektuari ere laguntza eskaini dio.

Jarduerak Ingurumenari

Hauek dira ingurumenari dagokionez egin diren ezohiko jarduketari buruzko datuak:

_ Beste eremu batzuen artean, Leitxaran, Pagoeta, Aralar, Oiartzun, Irisasi eta Jaizkibelgo basoetako 705 hektarea basoberritu dira.

_ Aldundiak, beste aldetik, bere, udalen eta beste erakundeen jabetzako mendietako 3.988 hektareatan baso tratamendu egokiak egin ditu.

_ *Gipuzkoa 2003 Planari* esker, 115 kilometro bide zabaldu dira gure mendietan.